

Deusto ikastetxea
Haur eta Lehen hezkuntza

Blas de Otero, 66 DEUSTO 48014 BILBAO
94 475 49 55

0-2 urteko udal haurtzandegia
Euskal eskola publikoa zure auzoan.
HATOR EZAGUTZERA!

ALTZAGA IKASTOLA ERANDIO BH

HAUR HEZKUNTZA (2-6) | Garraioa eta Jantokia
LEHEN HEZKUNTZA (6-12) | Ezkolaz kanpoko ekintzak
BIGARREN HEZKUNTZA (12-16)

Kukularra bidea, 8 • Tel.: HH-LH: 94 467 17 05 - DBH: 944 67 15 13 • Faxa: 944 67 09 36 • 48950 ERANDIO

LANGILE IKASTOLA

Matrikula zabalik dago etapa guztietan (2-16)
Otsailaren 3tik 14ra Laubidietan
ORDUTEGIA: 9:00-13:00 / 14:30-17:30
Ikastetxeak bisitatzeko aukera eskaintzen da

Laubidieta z/g • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
943 555 423 • Faxa: 943 331 936 •
E-mail: langile@ikastola.net • www.langile.com

FLEMING IKASTETXEA

EUSKALDUNA, DENONA ETA DENONTZAT

- HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA
2-6 urte ARROAN
6-12 urte ARRATZAINEN
- ESKAINITZA: Autobusa, jangela, informatika, baratza, kirolak, antzerkia.
- MATRIKULA EPEA:
Otsailaren 3tik 14ra
Ordutegia: 9etatik 13etara eta 14:30etatik 17etara

943 69 14 13
VILLABONA

La Salle ~ Berrozpe Ikastetxea

Otsailaren 3tik 14ra
HH-LH-DBHko
MATRIKULAK

Informazio gehiago
943 590 557
La Salle etorbidea, 5
20140 ANDOAIN

Euskadi AENOR EF-0449/2001 IONET

Zubi lanaren garrantzia

Programa pertsonalak erabiltzen dituzte Ordiziako Urdaneta ikastetxean ikaslea integratzeko

500 ikasle inguru aritzen dira Ordiziako Urdaneta ikastetxean. 200 bat ikasle Haur Hezkuntzako (HH) ikasketak egiten, eta beste 300 bat Lehen Hezkuntzako (LH) ikasketak egiten.

Ordizian dagoen batez beste euskaldun kopurua antze-man ahal da Urdaneta ikastetxean: Ordizian, euskara lehengo hizkuntza dutenak biztanleen %44 dira, eta gaztelania dutenak, % 56, gutxi gorabehera. Beraz, ikasleen erdiak baino gehiagok gaztelania du lehengo hizkuntza.

Orain dela 9 urte hasi zen Urdaneta ikastetxea Amara Berriko sistemaren bidetik. Aspal-dian desagertu zen A eredu, eta D eredu da nagusi Ordiziako Urdaneta ikastetxean. B eredukoak, D ereduan txertatuta daude.

Duela 13 urte, eskolan A eredu desagertzeaz zela, euskara jakin gabe iristen ziren haurrak B ereduan kokatzen zituzten. «Garai hartan, ikasle dezente hasi ziren etortzen, eta guztiak B ereduan sartzen genituen», Urdaneta ikastetxeko iturrien arabera. «Beraiek ez ziren gustura aurkitzen, eta, bestalde, konturatu ginen haur horiek behar handia zeukatela beren bizitzaz, kezkez, euren egoeraz eta abarrez hitz egiteko».

Gela barruan, gaztelaniaz ematen zitzaizkien Lengoaia eta Matematika. Taldekoekin Musika, Ingelesa (hirugarren mailatik gora) Soinketa eta abar izaten zituzten. «Gainerako ikasgaietan, ikasleak gelatik ateratzen genituen, ikasgai ho-



Urdaneta ikastetxea
Hainbat haur Urdaneta Ikastetxeko gela batean.

riek gaztelaniaz emateko», ikastetxeko arduradunen hitzetan.

Ondorioz, «ikasle hauengan euskararekiko gorrotoa sortu zen, eta, bestalde, B ereduko gurusoak kexatzen hasi ziren B eredukoek aitzakia zeukatela gaztelania erabiltzeko». Ikasleak D eredura pasatzen hasi, eta B ereduko taldean egoera berezi batean zeuden ikasleak geratu ziren. «Egoera hau ikusi eta ondo aztertu ondoren, orain daukagun zubi gela jartzea erabaki genuen», diote Urdaneta ikastetxeko arduradunek.

Baliabide egokia

Zubi gela edo laguntza gela hori, baliabide bezala erabiltzen dute: «Haurri harrera ona emateko, programa pertsonalaren bidez erabat integratzea lortzeko, ez dago integrazioa hizkuntza bera ez badugu erabiltzen, ez badago komunikazio-

rik, eta haur bakoitzaren curriculum behar bezala ez bada zaintzen».

Kanpotik etorritako ikasleak izan dituzte Urdaneta ikastetxean HHko zikloan, hala nola, Portugal, Bosnia, Errumania eta Europako beste hainbat herriatik etorritako haurrak. «Gela berezi hau jarri genuen ikasturtean, 15 ikasle iritsi ziren gure eskolara», diote ikastetxeko arduradunek. Hurrengo ikasturtean, Espainiako Estatutik, Dominikar Errepublikatik eta Kubatik etorritako ikasleak ere izan dituzte. «Aurten, horiek denak euren taldeetan ipini ditugu, eta zubi gela honetan sei ikasle izan dira».

Ikasle horiek «benetan integratzea» izan da haien asmoa. Horretarako, ikasle bakoitzak plangintza pertsonalizatua aurrrera eramane behar du. Bi urteko epean, ikasle bakoitzak dagokion taldean aritu ahal da.

ELIZATXO Ikastola

- KALITATEKO HEZKUNTZA, PROIEKTO EUSKALDUNA (D eredu)
- Informazio eta komunikazio teknologi berrien aintzindariak
- Eskola jantokia; heziketa gunea bi urtetik aurrera
- Ingelesa lau urtetik aurrera

HH / LH
Elizatzko, 12
Tel.: 943 557 224
Faxa: 943 332 261
elizatzko@elizatxoikastola.com
www.elizatxoikastola.com

DBH
Florida, 28
Tel.: 943 552 633
Faxa: 943 335 082
elizatxobhi@ikastola.net
20120 ANDOAIN